



BARREN
TOKIKOM



**Beste urrats bat
memoria historikoaren alde**



Baserriz baserri, kantuan eta eskean

SANTA AGEDA BEZPERAN ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Otsailaren 4an, astelehena,
arratsaldeko 14:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.

Gaueko 21:00ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean,
gero Aiastiako soziedadean afaltzeko.

**Urtarrilak 28 izango da koruetan izena emateko azken eguna:
943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus**



Antolatzailea: ELGOIBAR IZARRA



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Egia ala gezurra

teriko informazioa jasozten dugu bide ezberdinetatik, gure haurrek ere bai. Noizbehinka klikatzen dugu kuriositatez eta liluratzen uzten gara, gure haurrak bezala. Gai al gara egia gezurretik bereizteko? Ari al gara gure haurrak horretarako prestatzen?

Haurtzaroan oraindik bigunak, malguak eta irekiak egon ohi gara; egia askotarikoak izan ditzakegu, aldakorak, kontrajarriak, arazo hertsia mugatu gaibeak oraindik. Haurrengan dago erreallitatea ulertzeko gogo bizia, "zergatik?" galdera amaigabea dutelarik metodo zientifikoa.

Honela, fantasia eta irudimena hau-

rraren baliabideak dira, ez dakiena osatzeko eta nahi duena islatzeko; erreallitatean gauza bortitzak edo ulergaitzak gertatzen direnean, oso baliagarria zaie hori. Baina Gabonetako fenomeno bixia da; fantasiaren munduko pertsonaiak norbere herrian agertzen dira eta pertsonaia horren irudikapen zehatz hori benetakotzat "saltzen" da helduon arazoia erabiliz (mozorroak pertsonaia osatuko dutelakoan, haurrak euren magia ikusteko zain dauden bitartean). Gabon guztietan bultzatzen ditugu haurrak ikusten eta nabaritzen duten hori ukatu eta esaten duguna sinisterra, mozturoriko heldu ezezagunen magalean eseri eta musuak ematera opariak jasotzeko prest. Ematen du zer pentsatua.

Honela formulatzen dira maila guztietako azterketak, baita psikologia test-ak ere; erabaki behar dugu esaldiak diona egia den bere osotasunean.

Andoingo erregearen "traizioak" gaur egun egiarekin dugun erlazioaz hausnartzera eraman nau. Engainuz be-

"Gabon guztietan bultzatzen ditugu haurrak ikusten eta nabaritzen duten hori ukatu eta esaten duguna sinisterra, mozturorutako heldu ezezagunen magalean eseri eta musuak ematera"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaldua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Inigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UOLA
KUTUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2016

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► JESUS GURE LAGUNA

Beti laguntzeko prest, beti irribarre batekin... Horrela izango zaitugu gogoan, *Plaentxi* laguna. Etxegiña taldean zure laguntza behar izan genuenean, hor izan zinen, beti prest, beti alai, beti leial.

Bizitzak horrelako gauzak izaten ditu, baina iaz ere aukera izan zenuen gurekin egoteko une batez. Ze poza zu berriz ere ikustean!

Une horiek gogoan iltzatuak gertuko dira gure memorian. Ez adiorik. Beti izango zara gure gogoan Etxegiña taldean, eta Elgoibarko zein Euskal Herriko jendearen bihotzetan.

Eskerrik asko, *Plaentxi*.

Benetako lagun bat
nola adierazi,
Jesus Urizar beti
herritar *Plaentxi*,
kopla kantari ere
txukun ta berezi.
Herriko maitasuna
duzu irabazi!
Zure emankizunak
txaloak merezi.

Kepa Urain,
Etxegiña Taldeko koplaria

► ESKERRIK ASKO

San Lazaro Egoitzaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu, urtean zehar, ekitaldiak, jaiak... antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei. Elgoibarko Nagusilan elkarteko boluntarioek urte osoan zehar egiten duten lan ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahiko genuke, baita hainbat elkarrek gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Bereziki, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: Udalaren Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Gaztelekua, Ludoteka, Argia Taldea,

Parrokiako Abesbatza, Elgoibarko Izarra, Aire Andaluz taldea, Elgojaitza, San Bartolome Parrokia, Meka Lanbide Eskola, Elgoibarko Katekista taldea eta Jai Alai taberna. Era berean, eskerak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati. Gure esker ona guztiei.

San Lazaro Egoitzako zuzendaritza

► 120 ESKER MILA!

Giro bikaina aurten ere urteari agur esateko. Gabon zaharreko ferian hainbat postu, jendea nonnahi, bertako produktu eta animalietaz gozatzeko aukera paregabea.... Aurten ere, Elgoibar Ikastolakook Kalebarren plazan txosna jartzeko aukera izan genuen. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta bertan sortu zen giroa aparta izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Eskerrak emateko garaia da. Eskerrak asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta Debabarrenako Mankomunitateari, hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrak asko Armueta eta Ziarda harategiei, eusko label-dun sahietsa eskaintzeagatik. Manuel Amarori, kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan zein aurretik egindako lanagatik. Beristain Logistika banaketari eta Bernardo Ecenarri, edari zein beste material batzuk eskaintzeagatik. Eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe-eta.

Aurten ere, bereziki pozik gaude. 120 pertsona baino gehiago izan gara antolaketan eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. Izandako parte-hartzearekin harro gaude. 120 esker mila eta bejondeizuela! Azkenik, gogorarazi nahi dugu txosnan jasotako dirua herri mailan antolatzen ditugun ekimenak finantzatzeko erabiliko dugula: pilota eguna

eta Jose Gurrutxaga krosa alegia. Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

Elgoibar Ikastola

► ZER BERRI?

Urtarrilaren 15ean urtebete egin dute, nortasun agerian bestelako adina badute ere. Ordura arte inor gutxik hartzen zituen aintzakotzat, baina orain, protagonismo handia hartu dute. Beharrrak batu egin ditu, eta oso argazki polita egiten dute elkarren arrimuan. Askok ez dute elkar ezagutuko. Askok errezeloz begiratuko diote elkarri. Gainera, kasuren batean kenduta, gehienek gogo txikia izango dute abentura berria izateko, bestelako bidea joratzeko. Halarik ere, polita da arkatza edota boligrafoa erabilitakoak hitzordua, eta lekua zehazteko whatsapp erabiltzen gaztetuta ikustea. Helburua batzea da, indarra egitea, askoren interes bakarra dirua bada ere. Bai, polita da horrelako indar metaketa ikustea, gizartearen sektore batek bestelako bizi ohiturak nahi izatea, eta orain arteko tratamenduek ezer gutxi balio izan dutela ozen aldarrikatzea. Bai, oso ederra da, baldin eta orain arte hartutako pilulerekiko menpekotasuna alde batera uzteko asmoa dagoen, eta hainbeste urtetan hartutako errezeta zaharra aldatzeko prest gauden, bestela... zaharrak berri. Urteurrena ospatzeko larunbatean manifestazioa egingo dute.

Juan Luis Mugertza

► 2019.EKO JUAN MUGUERZA KROSAREN ESKER ONA

Ilatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXVI. edizioan, Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebi-

ziko arrakasta izan zuen 2019ko urtarilaren 13an jokatu zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagarrik, eta bestetik, gure herrira krosetan parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egin-dako harrera bero eta adeitsuagarrik. Leku guztietatik zoriondu digute, eta hau Elgoibar osoarekin partekatu nahi dugu.

Horregatik guztiagarrik, Elgoibarko herriaren izena, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da astebetetz, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Eskerrik asko baita ere komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren hamarkada boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, lanean jarraitzea gustatuko

litzaiguke. Horretarako lanerako prest dauden pertsonak ere beharko ditugu, datorren urteko krosa ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Badakigu gero eta zailago dela, baina lortuko dugu. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2020. urteko urtarilean krosa egiteko. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastalako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Eskerrik asko!

**Nuala elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu laguntzaile izan zaituztegunoi:
Elgoibarko Udaleko Ongizate eta Gazteria sailak, Inazio Bereziartua Musika Eskola,
BARREN astekaria eta DanobatGroup.**



Mendebaldeko Saharako errefuxiatuentzako janaria eta konpresak batzen hasi dira Elgoibarren eta Mendaron

Urteroko kanpaina hasi dute Saharar Ilargi Gorriak, Fronte Polisarioak eta Otsailak 27 Koordinakundeak (Bosgarren urtea da honakoa). Elikagaiak eta konpresak jaso nahi dituzte Saharako errefuxiatuei eramateko. Karabana otsailean abiatuko da Euskal Herritik errefuxiatuen Tindufeko kanpalekuetara, eta beraz, hil azkenera arte egongo da kanpaina parte hartzeko aukera. Honako produktu hauek eskatzen dituzte: arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegazu eta sardina latak, olio eta konpresak (ahal dela kristalezko poteak sahiesteko eskatu dute). Elgoibarko eta Mendaroko hainbat saltoki batu dira kanpainara. Elgoibarren: BM eta Eroski supermerkatuak, eta Mendaron: Coviran eta Roteta supermerkatuak eta Puxika gozoki-denda.



Inguruko herrietan ere ari dira kanpaina. Eibarren, honako leku hauek izendatu dituzte: BM, Eroski, Villalba, Isasi okindegia eta El Corte Ingles.

Zeanurin lurpetik ateratako hiru milizianoen gorpuk hobiratu dituzte Elgoibarko Kolunbarioan



2017ko azaroaren 18an atera zituzten lurpetik Altun mendian, Zeanurin. Pedro San Millan Beitiaren gorpuzkinekin bila ari ziren, baina Beitiaren gorpuzkinez gain, beste lau lagunengorpuzkinekin eta hiruren lepoko plakak topatu zituzten 36ko gerra-lubaki batean. Gorpu haiek senideei itzuli zizkien joan zen ostegunean Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak Gogorak Bilbon daukan egoitzan, eta bost miliziano horietako hiru Elgoibarko kolunbarioan hobiratu dituzte orain.

Perezagua Batailoko kideak ziren bostak. Hobian bertan topatutako lepoko plaka zenbakiari esker identifikatu zituzten haietako hiru: Pedro Garcia Gil, Pedro San Millan Beitia eta Isaias Rebollo Cardo. DNA probaren bidez jakin zuten gero Jose Maria Alberdi Ruizena zela laugarren gorpu bat eta bosgarrena Valentín Fernandez Sotorena izan daitekeela uste dute ikerketa historikoaren emaitza ikusita. Gogora Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak jardun zuten elkarlanean gorpuzkinekin lur azalera ekartzen.

Elgoibarko eta Soraluzeko 174 umek jaso dituzte jostailuak Gurutze Gorriari esker

Elgoibarko Gurutze Gorriak Eguberrietan egin zuten jostailu bilketa kanpainari esker, Elgoibarko eta Soraluzeko 85 familiatako 174 umek jaso dituzte jostailuak. Berriak izan dira batu eta banatu dituzten jostailu guztiak, eta Gurutze Gorritik eskerrik eman dizkiete kanpaina parte hartu duten dendari, enpresa eta norbanakoei. Bereziki Danobat, Etxetar eta Besa enpresek egindako diru-ekarpena eskertu dute, haiek gabe kanpaina hau ez litzatekeela posible izango esanda. Udaleko gizarke zerbizuetako bidez banatu zituzten opariak abendu bukaeran.



'Laja' soinujolea hil da, urte askoan Mendaroko Trinitateen arima izan zena



Zapato eguerdian hil zen Iñaki Garmendia *Laja* soinujolea, hogeita hamabost urtean baino gehiagoan Mendaroko Trinitate jaiak alaitu zituen musikaria. Arizterrazun ondoezak eman eta ospitalean hil zen *Laja*, 74 urterekin, eta haren heriotza oso sentitua izan da musika munduan eta zer esanik ez erromeria giroan. Landakandarekin osatu zuen urtetan bikotea, eta haretzekin etorri ohi zen Mendarora ere, Trinitate txiki egunez, egun osorako. Azkenekoz 2015. urtean izan zen Mendaroko Trinitateetan, Agustin Lazarobaster Trinitateko Jai Batzordeko kideak jakinarazi duenez. Geroztik, Ansorregi eta Larrañaga jardun dira haien ordez.

Hautes zerrendak osatzen laguntzeko deia egin dute Elgoibarko Ahal Dugu Podemos-etik, eta hein berean, zergen gaineko hobariak eskatzeko epea zabaldu dela gogorarazi dute

Udal hauteskundeetarako aurkeztu nahi du estreinakoz Elgoibarko Ahal Dugu Podemos-ek, eta hautes zerrendak osatzen laguntzeko deia egin die herritarrei. Aurkeko legealdian ez ziren aurkeztu Udalerako, baina Batzar Nagusietarako 464 boto lortu zituzten, eta saiatu nahiko lukete Elgoibarko Udalean sartzen. Zerrenda osatzeko hamazazpi lagun behar dituzte, baina, eta bila hasita daude. Interesa dutenei honako e-postara idazteko eskatu diete. podemos.elgoibar@gmail.com.

Bestalde, Podemosetik gogorarazi dute iazko azaroaren 12tik GAO-n argitaratuta dagoela aurtengo zergen egutegia, baina hor ez direla zehazten

kolektibo jakin batzuek jaso ditzaketen hobariak. Horren harira gogorarazi dute urtarrilaren 31a arteko epea dagoela zergen gaineko hobariak eskatzeko. Hasteko, 2019rako onartu diren ordenantza fiskalek familia ugariarentzako hobariak jasotzen dituzte ondasun higiezinaren gaineko zergen, eta baita trakzio mekanikoko ibilgailuen zergen ere (familia ugari bakoitzeko ibilgailu batek izango du eskatzeko aukera). Hobari horien zenbatekoa diru-sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera kalkulatu dute. Ondasun higiezinaren gaineko zergen, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako minusbaliotaren egiaztagiria dutenek ere izango

dute hobaria jasotzeko eskubidea, baina eskatu egin beharko dute, eta ez da atzeraginkortasuna aintzat hartuko. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen, bestalde, gutxi kutsatzen duten ibilgailuentzako hobariak ere jaso dituzte. Eskatzeko, baina, ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela aurkeztu beharko da, baita energia-eraginkortasunari buruzko etiketa ere, ibilgailu hori ez badago sartuta Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratutako *Guía de consumo de combustible y emisión de CO2* izeneko gidan. Hobari hori bi urtez emango da, ibilgailua lehenengoz matrikulatzen denetik hasita.

Elgoibarko ekoizleak saritu dituzte Debako Soro Ferian

Urteko lehen zapatuan Deban egin zuten Soro Ferian, fruta, barazki, ezti eta gazta lehiaketak egin zituzten Debako Udalaren ekimenez eta Elgoibarko hainbat ekoizle saritu zituzten haietan. Ezti lehiaketan, esaterako, bigarren eta hirugarren ezti onenei zegozkien saria jaso zuten Julian Villena eta Nagore Dorronsoro ez-tigileek, bi erlategiko bi ezti ezberdinekin. Villenak eta Dorronsorok Zortziko izenarekin komertzializatzen dute euren eztiak. Txapelketa Asier Bartin ez-tigile bergararrak irabazi zuen. Edonola ere, lehenengo hiru ezti onenen egileak sailkatzen dira Erlezain Egunean Zegaman jokatzen den Gipuzkoako Txapelketarako, eta beraz, hantxe izango dira Julian Villena eta Nagore Dorronsoro ere.

Barazki lehiaketan, berriz, Txillarre base-riko Peio Rubiok eskuratu zuen lehen saria. Garraikurra eta 200 euro jaso zituen saritzat. Horrez gain, Posturik Onenaren Saria ere irabazi zuen Rubiok. Azkenik, Gazta lehiaketan, Mausitxa baserriko Jesus Ansolak hirugarren egin zuen. Arabako La Lezeko gaztak irabazi zuen txapelketa eta Ordiziako Joseba Insausti-rena aukeratu zuten bigarren onenentzat.

Zentraletako fusilatzeen kronika



‘Elgoibar 1936. Zentral elektrikoetako fusilamenduak’ liburua argitaratu du Hodei Otegi (Baiona, 1982), Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Memoria historikoa lantzen diharduen Elgoibar 1936 taldekoa da Otegi eta Barrena eta Olaso zentraletako familiak jasandako jazarpenaren bueltan ardaztu du liburua.

- AINARA ARGOITIA -

1936. urteko iraila. Donostia hartu ostean, Francoren tropak eragozpen handirik gabe datoz Gipuzkoan aurrera. Aurretik, Bizkairantz ihesi doazen ehunka errefuxiatu iritsi dira Elgoibarrera, eta haiek dakartzaten berriekin ikaratuta, ehunka elgoibartar batuko zaizkie. Elgoibarren, hamar lagunetik batek alde egingo du, gehienak Markina aldera. Irailaren 20an, Azkoitia hartuko dute Diez de Rivera teniente koronelaren tropek eta aurre egin nahian, Azkarate gainean zain izango dituzte erretiradan datozen Frente Popularrekoak eta milizianoak, formazio militar gabeko mutilak. Francotarren tropak gelditzeko azken ahaleginetan, Aldazabal baserriaren aurreko aldean bonba bat leherraziko dute milizianoek, baina alferrik, irailaren 21ean, 18:00ak aldera, Elgoibarren sartuko direlako faxistak, saldoka, banderak hartuta.

Emilio Molaren aginduak betez, Elgoibarko toki garaienak hartu zituzten ondorengo egunetan, Morkaiko hartzea helburu zutela: Karakate, Garatemendi, Armueta gaina... Milizianoen defentsa frontea, berriz, Moru, Idotorbe, Aiastia, Morkaiko, eta Bioin artean kokatu zen. Miliziano konpainia ugari zeuden defentsalerroan: Gipuzkoako CNTko anarkistak, Barakaldoko batailoia, Arana Goiri EAJren batailoia, Azaña Izquierda Republicanako miliziak eta asaltoko guardia, besteak beste. Borroka odoltsuak izan ziren irailaren azkeneko egunetan. Francotarrek Idotorbe eta Morkaiko hartu ostean, berriz, Errepublikaren aldekoek Kalamuan osatu zuten defentsalerroa (Aste horretan sortu zen Eusko Gudarostea, EAJk aktiboki gerran parte hartuko zuela erabaki ostean). Eta zazpi hilabetez, Arrate, Kalamua eta Akondian egonkortu zen gero frontea.

Esan gabe doa hilabete gogorrak izan zirela, nola frontean zeudenentzat hala euren etxeetan gelditu ziren herritarrentzat. Giroa erabat gaiztotu zen, eta salaketak, atxiloketak, miaketak, harpilatzeak, kanporatzeak, genero-jazarpena... izan ziren. Emakumeek jasandako jazarpenari, esaterako, kapitulu oso bat eskaini dio Hodei Otegi liburuan. Izan ere, gizonak ez bezalakotzat zituzten faxistek emakumeak, eta gizonak ez bezalako zigorrak ezarri zizkieten, bereziki, aita, senarra, semea edo nebaren bat errepublikarren aldeko lurretan aurrera joanda zutenei edota mugimendu politikoren batean aritutakoei: kanporaketak

eta ile mozketak, besteak beste. Datu zehatzik egon ez arren, uste da 90 bat emakume eta ume kanporatu zituztela Elgoibartik eta Mendarotik, eta ilea arrasean moztuta erabili zuten emakumerik ere izan zela, Maria eta Jeronima Alberdi ahizpak, esaterako [Olasopeko alabak].

Gerra garaian, sufritzen ez duenik ez da izaten, baina Olasopekoei senperrak eta bi bizitzea egokitu zitzaizen. Berdin Erdiko Barrenako familiakoei. Elgoibarko bi zentral elektriko ziren Olasope eta Barrena, eta bi zentral horietakoek jasandakoen kontakizunak hartzen du liburua zati mardulena.

BI FAMILIAREN KALBARIOA

Jose Alberdi Etxaniz izan zen Barrena zentraleko enkargatua (sortzez azkoitiarra zen). Elgoibarko Armazio baserriko Maria Agirregomezkortarekin ezkondua zegoen Jose, eta hiru semeeren guraso ziren biak: Jose Miguel, Jose Francisco eta Juan Casto [Liburuan, Juan Castok berak idatzitako eguneroko bat ere jaso dute, aurrez beste inon argitaratu gabea. Eguneroko horretan, gerran eta gerra-ostean bizitako guruzbidea jasotzen du Juan Castok]. Olasope zentraleko senar-emazteak ere azkoitiarrak ziren jaiotzez: Mari Ignacia Arrieta, Torrekua baserrikoa, eta senarra, Asensio Alberdi, Zaldungoa. 4 urteko semearekin etorri ziren Azkoititik, Manuelekin, eta beste lau seme-alaba izan zituzten Olasopen: Teodoro, Maria, Jeronima eta Jose. Bi etxeotako senide guztiak jasan zuten faxismoaren gogorra, eta gizon bera izan zuten denek salatzaile: Teodoro Espila, Lacar konpainiako erreketea.

Espioitaz akusatu zituen Espilak, 1936ko abenduaren 11n. Espilak esan zuen herrian zurrumurrua zebilela Barrenakoek eta Olasopekoek errepublika zaleen aldera pasatzen laguntzen zirela jendeari. Are, sabotaiak ekintza bat gauzatu nahi izatea ere egotzi zion Barrenako Jose Alberdi Etxanizi. Espilaren arabera, tentsio handiko kableak askatu eta tropa nazionalen ahalik eta baja gehien eragin nahi zien Josek. Salaketan jasotakoaren arabera, Espila bera joan zen Jose Alberdi Etxaniz atxilotzera ere, Jose Dominguez Ortiz guardia zibila lagun hartuta. Beste aldera pasa nahi zutela esanez joan zirela dago jasota Espilaren testigantzan, eta Olasopeko alabek, Jeronimak eta Mariak, ondo



hartu zituztela. Espilaren arabera, bi ahizpak prest agertu ziren Barrenaraino laguntzeko, lehenago ere halakoak egin izan zituztela esanda, eta itxuraz, Barrenakoek ere gustura lagunduko ziretela esan zioten salatzaile izango zutenari. Hori entzuteaz bat, atxilotu egin zituzten bi ahizpak Olaso azpiko baserrian, Laukon, eta Joxe [Alberdi Arrieta], Jeronimaren eta Mariaren neba gazteena ere atxilotu zuten, hara agertu zenean.

Barrena zentralako enkargatu Jose Mari Alberdi Etxaniz atxilotzeko ere taktika bera erabili zuten Espilak eta Dominguezek, baina azken horri gerrikoa ikusi zion Alberdik eta mutu gelditu ei zen. Hala ere, atxilotu egin zuten, eta harekin batera, baita Maria Agirregomezkorta emaztea eta Jose Miguel seme zaharrena ere. Geroago atxilotu zuten Juan Casto seme gazteena, beste hainbat lagunekin batera: Asensio Azkarate, Isidora Gallastegi, Antonio Aranberri eta Paula Bedoya. Etxe hartan egin dako miaketan, Alderdi Komunistak sinatutako gutun bat aurkitu zutela jaso zuen Espilak bere testigantzan, eta kartzelan sartu zituzten denak, epaiketa sumarisimoaren egunera arte. Elgoibarko pleno aretoan egin zuten epaiketa, Pablo Cayuela teniente koronela presidente eta Arturo Iurrettagoyena militarra epaile zirela. Heriotza zigorra ezarri zieten lau laguni: Barrena zentralako nagusi Jose Alberdi Etxanizi eta Olasoeko hiru neba-arrebari: Maria, Jeronima eta haien neba gazteenari, Joseri. Gainerakoak aske laga zituzten. Fusilatzeke eguna eta lekua ere zehaztu zituzten: abenduaren 26an, Maltzagara bi-dean zegoen lubakian. Biharamunean, baina, Maria eta Jeronima absolbitu egin zituzten, On Jose herriko medikuak haurdun zeudela esan zuelako. Hilgo zituztenak bi beharrean lau izango zirela arrazoitu zuen abadeak, eta horretxek libratu zituen hiltzetik, baina, ez ordea, zigorretik. Izan ere, bizi osorako kartzela-zigorra ezarri zieten bi ahizpei. Ilea zerora moztu eta kamioi batean sartuta erabili zituzten biak, tente, herrian atzeraurrera, "bide aldrebasean ibiliz gero" gerta zekiekeenaz ohar tarazteko herritarrek. Gero, Ondarretako kartzelara eraman zituzten, eta handik Saturrarangora aldatu zituzten. 1943an laga zituzten libre, neba Manuelek zigorra berriro aztertzeke eskatu ondoren.

Jose Alberdi Etxaniz eta Jose Alberdi Arrieta, berriz, esandako egunean fusilatu zituzten, 1936ko abenduaren 26an, eta Olasoko hilerrian lurperatu zituzten gero, ustez hobi komun batean. Jose Miguel Alberdi Agirregomezkorta, Barrena zentralako seme zaharrena, berriz, 50 urtera zigortu zuten, aitari laguntzea leporatuta. Guztira, bederatzita urte egin zituen kartzelan.

Ezkerrean, Barrena familiakoak: Jose Alberdi eta Maria Agirregomezkorta senar-emazteak eta hiru semeak. Jose Miguel, Jose Francisco eta Juan Casto. Eskuinean, Olasoekoak: Goian. Jose, Jeronima, Manuel, Maria eta Teodoro neba-arrebak. Behean: Asensio Alberdi aita, Guillerma eta Maria Ignacia Arrieta ama.



HODEI OTEGI

1936Elgoibar

"Denbora asko eskatzen duen lana da, eta aldi berean, presazkoa"

◆ Non dago liburu honen abiapuntua?

Olasopeko fusilatzeen berri banuen aspalditik eta beti egin zait deigarria. Hasita geunden datu bila, baina 2017an, artikulua idatzi nuen webgunerako Olasoeko kontuen inguruan, eta hara non, Juan Mari Alberdi izeneko batek idatzi zidan esanez uste zuela datu batzuk oker zeudela, fusilatuetako bat euren aitona izan zelako eta Barrenakoa zelako [Jose Alberdi Etxaniz]. Juan Mari Alberdiren aitak, Juan Casto Alberdik, eguneroko batean jaso zituen gerran bizitako guztiak, itxuraz bilobaren batek eskatuta, eta dokumentu horrek, inoiz aurrez inon argitaratu gabeak, harrিতa laga ninduen. Gero, Juan Mariaren bitartez, Luciano Elkoroiribe ezagutu genuen, bere bizilaguna, eta Olasoeko zentralakoekin senide egiten dena. Lucianok datu pila bat eman zizkigun eta hark kontatutakoak erabakigarriak izan zaizkigu.

◆ Teodoro Espila salatzailearen testigantza ere jaso duzue. Zein zen Teodoro? Besteren baten topatu duzue bere izena?

Teodoro Espila erreketea zen, nafarra, Azkonakoa. Elgoibarko testigantzetan ez dugu beste inon topatu bere izena, baina Saturrarango kartzelan oinarritutako *Izarren Argia* dokumentalean ere aipatzen dute bere izena, salatzaile gisa. Izango zen beraz norbait! Gero jakin dugu, gainera, frankistek eurek ere epaitu zutela gero Teodoro Espila hau.

◆ Noiz hasi zinen zu Elgoibar 1936 taldean, eta zergatik? Zer duzue orain esku artean?


2007an hasi ginen, gudariak lurpetik ateratzeko asmoz. Bistan da, baina, inozo samarrak izan ginela. Hasi ginen, eta geroztik, datu pila bat batu ditugu. Eta konturatzen zara honek ez duela azkenik, datu batek beste baten bila hastea eskatzen duelako eta konturatzerako lotu egiten zaituelako. Denbora asko eskatzen du lan honek, baina aldi berean, presaz egin beharreko lana da, gerra bizi izan zutenen belaunaldi hori galtzen ari delako, baina asmoa bada noizbait datu guztiak liburu batean batzea. Eta Elgoibarren Memoria Historikoaren legea betearaztea ere nahiko nuke, oraindik ikur frankista asko dauzkagulako herrian, Udalak kenduko zituela agindu zuen arren.




Obiri eta Kipruto kenyarren erakustaldiak Mugertza Krosean

Bi antxitxikari kenyar nabarmendu ziren 76. Mugertza krosean, Hellen Obiri emakumezkoetan eta Rhonex Kipruto gizonezkoetan. Erakustaldia emanaz irabazi zuten biek, nagusitasunez. Obiri munduko txapeladuna da 5.000 metroko lasterketan eta zilarrezko domina lortu zuen Rio de Janeiroko (Brasil) Olinpiar Jokoetan. Stella Chesang (Uganda, 1996) ailegatu zen bigarren postuan, eta Beatrice Chepkoechek (Kenya, 1991) egin zuen hirugarren. Probak izan zuen mailaren adierazgarri da 3.000 metro oztopo-lasterketako munduko errekorra daukan Chepkoechek hirugarren egin izana. Gizonezkoen proba nagusia Rhonex Kipruto (Kenya, 1999) izan zen azkarrena 20 urteren bueltan dabilizan hiru atleta afrikarren arteko lehia. Iazko irabazle Selemone Barega (Etiopia, 2000) garaipena errepikatzen saiatu zen arren, Kipruto bere legea ezarri zuen, hala nahi izan zuenean. Errege Egunean Zornotzako Nazioarteko Krosa irabazteko zetorren Stanley Waithaka (Kenya 2000) sailkatu zuen hirugarren postuan. Bi urtean behin jokatzeko den Munduko Kros Txapelketa jokatu dute martxoaren 30ean Danimarkako Aarhus hirian. Adi egon beharko da Elgoibarren protagonista izan diren antxitxikariak zer egiteko gai diren ikusteko. Mamo Wolde Sariaren 17. edizioan saltakari ingelesak gailendu ziren: Amelia Samuels emakumezkoetan, eta, Zakariya Mahamed gizonezkoetan.







ZEHAR HEZIKETA ETA PROGRAMAK ELKARTERAKO LAN POLTSA

Zehar Heziketa eta Programak Elkarteak lan polita osatzen gabilta, Elgoibarko Gazteleku eta Ludoteka zerbitzuetarako. Profesionalaren profila:

- Gizarte hezkuntza, pedagogia, magisteritza, psikologia, gizarte lana... edo antzeko unibertsitateko gradua.
- EGA ziurtagiria.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
urtarrilaren 31 baino lehen

zehirheziketa_2@hotmail.com

Zehar
Heziketa eta Programak



San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535


URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU.
ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA
250 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

2. SARIA
250 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **2.109**
Ordezko zbkia.: **3.290**

Zbkia.: **3.129**
Ordezko zbkia.: **2.415**



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0 (2018an eta 2019an jaiotakoak), otsailtik ekainera
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 14tik 25era



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441



Ordutegi zabala: 7:30-19:30. Jai-zubietan eta oporretan irekita



▶ OIER ETXANIZ

ASPANOGI ELKARTEKO BOLUNTARIOA

Haur minbizidunen elkarteko boluntarioa da Oier Etxaniz (Elgoibar, 1988) eta Kristian Pérez eta Carmen Valois elkartekideekin batera 'Itsasoan barrena' liburua kaleratu berri du, Aspanogiren eskutik. Lan kolektiboa izan da, beste lagun askok ere parte hartu dutelako prozesuan, tartean Ane Odria elgoibartarrak. Euskararen ardura hartu du Odiak. Otsailaren 13an, hitzaldia eskainiko du Etxanizek, Kultur Etxeko sotoan, 18:00etan, Aspanogik eta Gazte Asanbladak antolatuta.

- AINARA ARGOITIA -



“Indar guztia aurrera egitean jartzen dute minbizidun haurrek”

♦ Zer beharrek eraman zintuen liburu hau idaztera?

Minbizidun haurren inguruan euskaraz ezer gutxi idatzi delako ekin genion honi. Liburuak egon badaude beste hizkuntza batzuetan, baina horietan ere, minbizia zeharkako protagonista da; gutxitan tratatzen da gaitza bera zuzenean. Behar horretatik abiatu ginen, baina egia da minbiziaz naturaltasun osoz hitz egiteko saioa ere badela liburuak. Edonork dauka minbizia duen edo izan duen norbait inguruan, eta normalizatu nahi izan dugu hori ere. Minbiziaren inguruko topiko nagusia ere gezurtatu nahi izan dugu, minbiziak ez duelako beti heriotza esan nahi.

♦ Nola egituratu duzue liburua?

Ume zirela minbizia izan zuten zazpi lagunen arteko mahai-inguru antzeko baten transkribapena da liburuak. Adin ezberdinekin diagnostikatu zieten minbizia zazpi protagonistei eta gaitza nola bizi izan zuten kontatzen dute. Diagnostiko bera izanda ere, gaitzaren aurrean bakoitzak hartzen duen jarrera ezberdina da, eta pilotutako bizipenak ere bai. Agertzen dira jazarpen kasuak, familiako kontuak... Zazpi protagonistek aspalditik ezagutzen zuten elkar, baina sekula ez zuten euren artean minbiziaz hitz egin.

♦ Etxe askotan sartu den gaitza izan arren, oraindik estigma handiko gaitza da minbizia hortaz.

Bai. Izurri bat da minbizia, baina kasu bakoitza bakarra da. Aldaera asko dituen gaitza da, eta ez dago bakuna bat denak amaituko dituenak. Diagnostikoa drama bat da, eraginak agerikoak dira, tratamenduak gogorrak, eta portzentaje ez txiki batean heriotza eragiten du gaitzak. Beldur handia diogu, eta beldur horrek eragiten digu askotan ez jakitea min-

bizia duen horrengana nola gerturatu ere.

♦ Zer irakasgai atera duzu?

Bizitzaren pertzepzioa goitik behera aldatzen zaiela gaixoei: garrantzia benetan garrantzia duten gauzei ematen hasten dira gaixoak. Protagonistetako batzuek ospitalean egindako lagunak ere galdu dituzte prozesuan eta horrek ezinbestean aldatu die bizitzaz duten pertzepzioa. Irakasgai handia eman digute: edozer gertatzen dela ere, aurrera egin behar dela.

♦ Haurrengan jarri duzue begia. Adinak ere aldatzen du gaitzaz dugun pertzepzioa?

Bai. Umeek aurrera egitean jartzen dute indar guztia. Badakite gaixo daudela eta tratamendu bat jaso behar dutela, eta horixe lehenbailehen amaitzea nahi izaten dute. Gaixo daude, baina ume izaten jarraitzen dute, eta Aspanogiren bueltan gabiltzanon lana ere horixe da: umeek bizipoza ez galtzea. Gurasoek okerrago bizi dute. Heriotzaren mamua hor dute eta umea bakarrik laga ezin dutenez, bietako batek lana laga behar izaten du, eta horrek eragin ekonomikoa ere izaten du familian. Drama bat da. Minbizia nagusiagotan diagnostikatu dietenen kasuan kezka beste batzuk dira. Bularreko minbizia dutenen elkarteko (Kattalin) lagunekin sarri erabili dugu gai hau. 50 bat urtez gorako emakumeak dira Kattalinerak gerturatzen direnetako asko, eta eurenaz gain, beste askoren zaintzak ere kezkatzen ditu.

♦ Zein egiteko duzu Aspanogin?

Boluntarioa naiz. Informatikaria naiz ikasketaz eta informatika gus-tatzen zaien haurrek entretenitzen ibiltzen naiz. Orain, bioinformatikan doktoregoa egiten ari naiz eta minbizia ikertzen nabil onkologoekin batera.



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Badirudi Urazandi auzoan libre dela edonon aparkatzea:

“Urazandi auzoan edozein lekutan uzten du autoa jendeak. Espaloi gainean lau edo bost auto bata bestearen segidan aparkatuta egoten dira sarri, eta horrek trafikoa izugarri oztopoatzen du, errepidea estutzen delako eta ez delako egoten lekurik bi auto gurutzatzeko. Herrigunean udaltzainak adi-adi egoten dira, baina Urazandin dena libre dela dirudi”.



Pilarreko aparkalekuan bota dituzte arropak:

“Pilarreko aparkalekuan arropa eta oinetako pila bat bota dituzte, eta hori ez da horretarako lekua. Herrian arropak botatzeko espreski jarritako hainbat edukiontzi daude, eta bertara bota behar dira. Arropa hori behar dutenen artean banatzen dute, gainera, beraz, oso interesgarria da norberak behar ez dituenak edukiontzi horietara botatzea”.



San Frantzisko iturriaren goiko aldea oso iluna da:

“San Frantzisko iturritik Pedro Migel Urruzuno kalera doan espaloian ez dago farolarik, eta ingurune hori oso ilun geratzen da. Eskertuko genuke inguru horretako argiztapena hobetzea”. Iosu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak jakinarazi du Aita Agirre plazako lanekin batera ingurune horretan argiteria puntu berriak jarriko dituztela argiztapena hobetzeko.


Errege Magoetako bik gaztelaniaz egin zieten berba umeei: “Errege kabalgataren ostean umeak erregeekin hitz egitera joan zirenean hiru erregetatik bik gaztelaraz egin zietela esan ziguten. Atzerapauso handia iruditzen zait umeentzat antolatzen den ekintza honetan erregeek umeei gaztelaraz egitea. Urtean zehar hamaika ekimen egiten dira umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta horrelako gauzek ez diote batere laguntzen euskararen normalizazioari. Hurrengo urterako hau kontuan hartzea gustatuko litzaidake, gure herriko umeek erregeekin euskaraz egiteko eskubidea daukate eta.”.

Txapliguen inguruko legedia aldatu al da?: “Gabon zahar gauean izan zen su-festa ikusita, suzirien eta txapliguen inguruko legea aldatu ote den jakin nahiko nuke. Garai batean behintzat debekatuta zegoen Elgoibarren txapliguak botatzea, baina Gabon zahar gauekoa izugarria izan zen. Gure etxe azpian bota eta bota ibili ziren eta lotsagarria iruditzen zait. Zer dio araudiak horren inguruan?”. Udalera jo dugu galdezka, eta Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak jakinarazi du, gaur gaurkoz Elgoibarren ez dagoela gai honi buruzko araudirik.



Justo Carcedo Urbina


2018ko abenduaren 16an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Pedro Isasti Gagor

2018ko urtarrilaren 15ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
urtarrilaren 20an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Pedro Mari Esnaola Irusta

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilaren 19an, 19:00etan Elgoibarko
Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Beti izango zaitugu gure bihotzetan.




VII. URTEURRENA

Mari Karmen Gabilondo Etxabe

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak




I. URTEURRENA



Felisa Bergaretxe Ardanza

2018ko urtarrilaren 19an hil zen, 102 urte zituela.

***Zure maitasuna,
eskuzabaltasuna eta alaitasuna hain handiak izan direlako,
beti egongo zara gure oroimenean eta bihotzean.
Izan zarenagatik,
erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



▶ JOSE IGNACIO IBAÑEZ

ELIKADURA ORTOMOLEKULARREAN ADITUA

Jose Ignacio Ibañez perito industrial da lanbidez, baina bere pasio eta bokazioa elikadura eta terapia osagarriak izan dira betidanik. 21 urte zituenean Phytoterapia ikasketak egin zituen Bilbon, eta erretiroa hartu ostean, ikasketa horietan sakondu zuen. Gaur egun nutrizionisten eta dietisten aholkulari lanetan aritzen da, eta horiei eta beren gorputza zaindu nahi dutenei laguntzeko asmoz, elikadura ortomolekurrarari buruzko gidaliburu bat idatzi du. Martitzenean aurkeztuko du liburua Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00etan.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Zer da elikadura ortomolekularra?

Dieta orekatuaz gain, osagarri dietetikoak hartzean datza elikadura ortomolekularra. Biologo molekularrak eta biologo nutrizionistak urte asko daramatzate esaten herrialde garatueta gehiegi janda gaudela, baina desnutrizioa dugula. Euskal Herrian hori esanez gero, berehala erantzungo dizute hemen denetik eta ondo jaten dugula. Baina bi gauza bereiztu behar ditugu: jaten duguna eta jaten dugun horrek ematen diguna.

◆ Gehiegi janda eta desnutrizio egoeran. Zer dela eta?

Demagun azalore bat hartzen duzula baratetik. Sustrai mozten diozun unean bertan hasten da azalorea nutrienteak galtzen. Baratetik hartu eta guk jan arteko bidean nutriente pila galdu ditu. Gaur egungo gaixotasun gehienak desnutrizioaren ondorio dira. Elikadura ortomolekularra desnutrizio hori osatzeko sortu zen Estatu Batuetan, 50eko hamarkadan. Mediku talde bat konturatu zen hainbat gaixotasun sendatzeko ematen ziren ohiko botikak eragin kaltegarri gehiago zituztela sendatzekoak baino. Konturatu ziren gaixotasun horietako asko gure organismoak zituen gabezia batzuen ondorio zirela. Azken batean, gure gorputza makina biologiko bat da, bizitzan zehar garatzen dena eta bere puntu gorenera iristen denean, itzaltzen hasten dena. Makina hori elikatzeke erregaia behar da: bitaminak, mineralak, aminoazidoak... Erregai horretan dago gakoa. Erregai horretan daukagu gabezia gaur egun eta horretarako behar dira dietetika osagarriak. Laborategiek puntu gorenean daudenean hartzen dituzte elikagaiak eta landareak, produktu osagarri horiek ekoizteko. Produktu organikoak dira, gure organismoak bereak balira bezala hartzen dituenak.

◆ Elikadurak zenbateko eragina dauka osasunean?

Erabatekoa. Elikadura izan beharko litzateke gure botika bakarra. Hipokratesek ere jende pila bat sendatu zuen elikadura zainduta eta landareekin. Ez zeukan oinarri zientifikorik, baina ikusi zuen jaten duguna eta osasuna eskutik doazela. Gaur egun gero eta gaixotasun arraro gehiago daude, eta gehienak gure makina biologikoaren zahartzearekin lotuta daude. Kontua da, desnutrizioaren eraginez azkarregi zahartzen ari garela. Bati baino gehiagori



“Elikadura izan beharko litzateke gure botika bakarra”

pasatu zaio medikuarengana joan eta hark esatea: “50 urte dituzu, baina 70 urteko baten organismoa daukazu”. Orain arte urteak gehitu dizkiogu bizitzari, baina kalitatezko bizitza bat nahi badugu, urteei bizitza gehitu behar zaie. 20 urtetik 40ra bitartean egiten duguna izango da gure zahartzaroaren emaitza.

◆ Nondik datorkizu alor honetarako interesa?

Betidanik gustatu izan zait. 21 urterekin Phytoterapia ikasituen Bilbon. Gaixotasunak sahisteko landareen propietate aktiboak erabiltzen ditu Phytoterapiak. Baina garai hartan terapia osagarrietatik bizitza ez zen posible, eta bizimodua aurrera ateratzen ahal izateko perito industrial lanetan sartu nintzen. Hala ere, ez dut sekula mundu hau baztertu, eta orain dela urte batzuk ikasketak osatu nituen. Azken urteetan aholkulari lanetan aritu naiz, baina laster hartuko dut erretiroa. Liburu hau osasuna zaindu nahi dutenentzako gida ona izango da.

◆ Ziurtatu dezakezu terapia osagarri hauek funtzionatzen dutela?

Bai. Nahi beste oztopo jarri ahal zaizkie, baina diziplina egiaztatuak dira. Dena dela, gure makina biologikoari gertatzen zaion guztia ezin da ulertu eta ezin du dena konpondu, baina emaitza onak ematen dituzte. Batzuetan medikuntza tradizionalako tratamendua bera indartzen du, eta beste batzuetan medikuntza kimikoaren zeharkaldeen arintzen ditu. Nik neuk ere hartzen ditut osagarri horiek eta medikuak harritu egiten dira nire osasun egoerarekin.

Mufomi Fosil eta Mineralen museoaren 25. urteurrenari eskaini diote aurten San Anton jaietako zigilu erakusketa

A lizolatarren Dorretxea elkarteak San Anton jaien bueltan antolatzen duen zigilu erakusketa Mufomi Fosil eta Mineralen Museoari eskaini diote aurten, 25 urte bete dituelako. Atzotik dago ikusgai erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta hilaren 26ra arte egongo da zabalik. Inaugurazio ekitaldian hainbat bildumagilek eta Mufomiko kideek hartu zuten parte. Zigilu erakusketa ikusteko ordutegia: 12:00/14:00 - 18:30/20:30 (jai egunetan) eta 18:30/20:30 (lan egunetan). Horrekin batera, erakusketa ikusteko bisita gidatua antolatu dute biharko Haizea Emakume Taldearekin elkarlanean. 12:00etan izango da.



Urtarrilaren 28rako eman behar da izena Elgoibarko Izarrak antolatutako baserrietako santa eskean parte hartzeko



Ohitura zaharrari jarraituz, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera egunean, irtengo dira Elgoibarko Izarrako kideak baserri-zuzenari santa eskean. 1994an berreskuratu zuen Elgoibarko Izarrak baserri-zuzenari kantuan jarduteko ohitura, eta aurten 25. aldian izango dute. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta, ahalik eta baserri gehien pasatuko dituzte koplak kantari. 21:30ak aldera arte jardungo dute kantuan, eta eguna amaitzeko, Aiastiako elkartearekin afalduko dute. Koruetan parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 28rako eman behar dute izena 943 741 626 (Imanol) telefonora deituta edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita. Ekimen hau Udalaren lankidetzarekin antolatzen du Elgoibarko Izarrak.

Dolmenen Ibilbideari buruzko hitzaldia antolatu dute datorren barixakurako

Karakate eta Irukurutzeta bitartean dagoen Dolmenen Ibilbideari buruzko hitzaldia antolatu dute Debegeesak eta Elgoibarko Udalak urtarrilaren 25erako. Aranzadi Elkarteak Jesus Tapia eta EHUko Fernando Bazeta izango dira hizlariak. Alde batetik, dolmenen ibilbidea zer den eta horrek daukan garrantzia azalduko dute. Bestetik, pasa den udazkenean egindako lanen berri ere emango dute. Amaieran, mahai-inguru txiki bat ere egingo dute. Bi ordu inguruko iraupena izango du, eta irekia izango da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da ekitaldia, 18:00etatik aurrera.

'Go!azen' antzezlanaren bi saio eskainiko dituzte domekan



Glu-glu taldeak *Go!azen 5.0* antzezlanaren bi emanaldi eskainiko ditu domekan, Herriko Antzokian. 12:30ean izango da lehenengo, eta 16:30ean, bigarrena. Antolatzaileek jakinarazi dute bi saioetarako sarrerek agortuta daudela. Antzerki obra musikala da *Go!azen 5.0*, aurreko urteetakoak moduan. Telebistan ikusi ahal izango diren istorio eta gorabeherak laburtu eta moldatu dituzte oholtza gainean eskaintzeko. Uda iritsi da berriro, eta Basakabik ateak zabaldu ditu, Zuzen buru duela. Abentura, maitasun istorio eta lagunaren arteko kontu berriak sortuko dira, batzuetan umorezkoak, beste batzuetan, berriz, tristeak.

Anttoni Eguna antolatu dute biharko

Elgoibarko Udalak, herriko gazteekin elkarlanean, Anttoni! eguna antolatu du estreinakoz, San Anton jaien bueltan. Bihar izango da. Egitaraua prest zuten, baina azken momentuan aldaketa batzuk egin behar izan dituzte: batetik, Zubi Ondo elkartean egin behar zuten bazkaria bertan behera utzi dute, jende gutxi eman duelako izena. Era berean, Malen Amenabar eta Jokin Uranga bertsolariek eskaini behar zuten bertso-saioa ere bertan behera gelditu da. Aldiz, Matraka Electrotxaranga-ren kalejira (19:00) eta Olatz Salvadorrek eta Bad Sound-en kontzertuak mantendu egin dituzte. Kontzertua Maalan izango da, 22:00etatik aurrera.

Orri markagailuen lehiaketa

Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du, eta herritarren eskariz, lanak entregatzeko epea luzatu dute. Otsailaren 22ra arte egongo da, beraz, parte hartzeko aukera. Ipuinetako pertsonaiak izango da gaia. Marrazkiak paperean edo PDF formatuan aurkeztu daitezke. Irabazleak tablet bat jasoko du saritzat.

Elgoibarko dantzariak Legazpiko aurreku txapelketan hartu dute parte

Joan zen asteburuan hasi zen aurreku txapelketa Legazpin, eta Elgoibarko ordezkariak ere hantxe izan ziren. Inazio Bereziartua dantza eskolako Eneko Etxaniz, Amaia Sasiain, Maddalen Oñederra eta Jone Gilek hartu zuten parte, eta arduradunak pozik itzuli dira egindako lanarekin. Aurten neska zein mutilek dantza berberak egin beharko dituzte. Hurrengo kanporaketa Villabonan izango da otsailaren 3an, eta bertan Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Amaia Sasiain izango dira Elgoibarko ordezkariak.



MICE-ren kontzertua antolatu du Sinuosek datorren barixakurako

Sinuosek antolatuta, kontzertua eskainiko du MICE-k gaur zortzi, Kultur Etxeko sotoan. Miren Narbaiza musikari eibartarra dago MICE-ren atzean. Napoka Iria utzi ostean, musika proiektu desberdinetan aritu da Narbaiza, eta orain, bere bakarkako lana aurkeztera etorriko da. Zortzi abestiz osatu du diskoa. Abesti denak berak idatzi eta konposatutakoak dira, eta Joseba B. Lenoirrek ekoiztu ditu. 23:00etan hasiko da saioa.

Gazte Asanbladak hiru kontzertu antolatu ditu datozen hilabeteetarako

Elgoibarko Gazte Asanbladak hilean behin kontzertua antolatzeko dinamikarekin jarraitu nahi du 2019an ere, eta dagoeneko, hiru emanaldi lotu dituzte datozen hilabeteetarako. Otsailaren 2an Ultimatum eta Chirla records taldeek eskainiko dute kontzertua. Martxoaren 15ean, berriz, Anari etorriko da, eta apirilaren 6an Perlata taldea. Sutegian izango dira kontzertuak.



Arg.: FOTOIOSU

Kilometro gehiago, ilusio bera

Ultra distantziako lasterketen aldeko apostua egingo du 2019an Maite Maiora mendiko lasterkari mendaroarrak. Azken urteetan 20 eta 40 kilometro bitarteko Sky Kopako probetan lehiatu da bereziki, ultra distantziako probaren bat edo beste ere egin izan duen arren. "Jendeak askotan galdetzen zidan noiz eman behar nuen ultratarako jauzia. Erabat konbentzita egon behar da horrelako erabaki bat hartzeko, zalantza izpirik gabe, eta entrenamenduak ere horrelako proba luzeetarako egokitu behar dira. Behin erabakia hartuta, gauza bat nuen argi: Mont Blancetako Ultra Traila izango zela egingo nuen aurrenekoa". Munduko mendi lasterketa luzeetan ospetsuena da UTMB Mont Blancetako ultratraila, duela hamabost urtetik Alpeetan jokatzen dena. 170 kilometroko ibilbidea eta 10.000 metroko desnibel positiboa ditu abuztuan jokatzen den probak. "Hemen badaukagu distantzia horretako lasterketa bat, Ehunmilak, baina UTMB da lasterketen lasterketa, probarik ezagunena eta entzute-suen munduan", azaldu du Maiorak denboraldiko helburu nagusia izango duen Mont Blancetako ultratrailaz. Gainera, pixka bat ezagutzen du proba, izan ere CCC (Courmayeur-Champex-Chamonix) proba korritu zuen 2017an. "Mont Blancetako ultratrailaren ibilbideko azken 100 kilometroak egin nituen, aurreneko 60 kilometroak egitea falta zazkit. Ezin daitezke konparatu baina. 12 orduko proba da CCC-a, eta 24 ordukoa bestea. Iluntzeko zazpiretan hasten dira korrika UTMBko partaideak eta hurrengo eguneko iluntzean ailegaten dira aurrenekoak. Dena esanda dago".

Zegama Aizkorri, Kilimon Trail eta Alpe D'Huez-eko triatloia

Denboraldiko helburu nagusia izango da Maiorarentzat, baina ez bakarra. Aurten beste bi ultra lasterketa egin nahi ditu, Ultra-Trail World Tour (UTWT) zirkuitu barrukoak biak: Madeiran apirilaren 27an jokatuko duten 115 kilometroko ultra eta Italiako Dolomitetan, Lavaredon, ekainaren 28an jokatuko den 120 kilo-

metrokoa. Ultrez gainera, beste distantzia batzuetako lasterketak ere sartu ditu 2019rako osatu duen lasterketen egutegian. Proba kuttunak dira bi: Zegama Aizkorri maratoia, eman dion guztiagatik, eta, nola ez, etxeko proba, apirillean jokatuko den Kilimon Trail. "Ez naiz egongo errekorra egiteko moduan, Madeirako ultra jokatuko baino 15 egun lehenago izango baita, baina etxekoei ezin diet hutsik egin". Mendiko maratoiko Munduko txapeldua izana da Maiora, eta munduko bazter eta proba askotatik jasotzen ditu parte hartzeko gonbidapenak. "Proba jokatzen den lekuagatik, antolatzaileengatik edo antzerako beste irizpide batzuen arabera erabakitzen dut zeinetan parte hartu. Azken hiru urtetan gonbidatu naute martxoan Kolonbian jokatzen den Pacific Trail (62 km.) mendiko lasterketatik eta aurtengoan joateko asmoa dut, besteak beste, lagun batek gonbidatu nauelako eta Kolonbia moduko herrialde bat ezagutzeko aukera emango didalako.

Maiorak lanarekin uztartu behar du lasterketen egutegia, eta horren arabera ere aukeratzen ditu probak. Aurrekoek gainera, begiz jota dauka parte-hartzeak ilusio handia egiten dion beste proba bat ere: Alpe D'Huez-eko triatloia (2,2 km igerian, 118 bizikletaz eta 20 km. korrika). "Ultrak prestatzeko entrenamendu luzeagoak egingo ditut, horixe izango da aldaketa nagusia nire prestakuntzan, eta bizikleta ere gehiago erabiliko dut. Eta, igerian ere apuntatu naizenez, ilusio handia daukat uztailean egiten den triatloi horretan parte hartzeko. Aldapaz betea eta gogorra da, Alpe du Grand Serre (1375 m), Col d'Ornon (1371 m) eta Alpe d'Huez Frantziako Tourreko mendate mitikoa igo behar baitira bizikletaz. Igeriketako proba Verney lakuan jokatzen da (eta hango ur gardenetan igerian egitea baimenduta dagoen aukera bakarra da). Nire gustu eta ezaugarrietara primeran moldatzen den proba dela uste dut. Nire prestatzale Etor Mendiak ere halaxe esan zidan: 'Triatloi bat egitekotan, dudarik gabe, horixe egin'. Azkenik, babesle berria estreinatuko du Maiorak 2019an, La Sportiva laga eta gero. Aurki jakinaraziko du zein duen.

Danobat Iriondo xake txapelketako finalerdiak zehaztuta daude



Iriondo tabernan jokatzen diharduten VII. Danobat Iriondo xake txapelketako bigarren fasea amaitu da eta finalerdietarako sailkatu diren lau xakelariak bi aste dituzte elkarren aurkako partidak jokatzeko. Elorrioko xakelari Aitor Gallastegik Tomas Conde elgoibartarraren aurka jokatuko du finalerdietako bat, eta Felix Manso urnietarrak Juan Manuel Navarro elgoibartarra izango du aurkari bigarrengean. Era berean, Ligako bigarren faserako sailkatu ez ziren xakelariak Kopa txapelketa jokatu dute. Juan Jose Gomez elgoibartarrak Iker Ruiz soraluzetarraren aurka jokatuko du lehen finalerdia eta Jose Antonio Garrido eibartarrak Jon Esnola elgoibartarraren aurka bigarrena. Bestetik, joan den asteburuan hasi zen Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketan, etxean jokatu zuten lehen diharduten herriko hiru taldeek. Bigarren mailan, Createch Medical taldeak galdu egin zuen Zarauzko C. Iriondo taldearen aurkako neurketa. Mikel Leonek eta Iker Ruizek puntu erdi lortu zituzten, tablak eginda, baina Juan Manuel Navarrok eta Juan Jose Gomezek galdu egin zituzten euren partidak. Hirugarren Mailan, berriz, Elgoibarko bi taldeek elkarren aurka jokatu zuten, eta Olan arkitektura taldeak 3 eta 1 irabazi zuen ITS Security taldearen aurkako derbia.

San Anton pilota txapelketako finalak, gaur, Ikastolako frontoian

San Anton Pilota Txapelketaren 27. ekitaldiko finalak, promesa eta nagusien mailakoak, jokatuko dituzte gaur, 22:00etatik aurrera, Ikastolako frontoian. Promesetan, iazko irabazle Alberdi II eta Apezetxea bikoteak De La Fuentek eta Olidenek osatutakoa izango du aurkari.

Nagusietan, Labakak eta Telletxeak Salaberria eta Bikuñaren aurka jokatuko dute Lagunak Plota Eskolak antolatzen duen txapelketako final handia.



Harrijasotze apustua: Goikoetxe vs Izeta IV.

Imanol Albizu Goikoetxek erronka bota dio Hodei Iruretagoiena Izeta IV.ari, eta harri-jasotzaile zarauztarrak onartu egin du elgoibartarraren desafioa. Azpeitiko Mendizabal erretegian elkartu ziren zapatuan, Goikoetxek botatako erronkaz berba egiteko, eta akordiora iritsi ziren. Maiatzaren 4an Azpeitiko zezen plazan egingo dute jokoa. Bi harri-jasotzaileek hamar minutuko hiru txanda egingo dituzte 125 kiloko kubikoarekin.

Mendi irteera Tellamendira eta sagardotegian bazkaria

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi irteera berezia antolatzen du urtero sagardo denboraldian. Aurtengoa otsailaren 16an izango da. Tellamendi mendira (834 m.) igo ostean Aramaioko Iturrieta sagardotegian bazkalduko dute. Otsailaren 6a da izena emateko azken eguna. Interesatuak e-posta idatzi behar dute morkaiko@morkaiko.eus helbidera edo bestela Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan eman dezakete izena (Bulegoko ordutegia: asteazkena 19:00- 20:30).

Igeriketako Master talde berria

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Igeriketako Master talde berri bat eskainiko du otsailetik aurrera, eguerdiko ordutegian. Master talde honetan igerian ondo egiten dutenek parte hartu dezakete, itsasoko zeharkaldietan edo triatlloietan parte hartzeko teknika eta prestaketa fisikoa hobetzeko edo egunerokotasuneko igerian egiteko ohitura dutenek, teknika hobetzeko. Interesa dutenek Olaizaga Kiroldegian eman beharko dute izena, urtarrilaren 28a baino lehenago.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. ☎ 688 718 853

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut. ☎ 612 232 312

Etxeko langile moduan egingo nuke lan. Berehala hasteko prest nago. Erreferentzia onak ditut. ☎ 631 975 260

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 653 667 975

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Malgutasun osoa. ☎ 612 463 096

Nagusiak zaintzen egingo nuke lan, orduka eta asteburuetan. ☎ 631 558 243

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 412 561

Edozein lan egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua. ☎ 632 480 376

Adineko gizonetzkoak zainduko nituzke. ☎ 631 724 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 631 724 921

Adinekoak zaindu edo etxeak garbitzeko prest nago. ☎ 659 513 578

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Orduka. ☎ 631 666 099

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 632 265 200

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 632 265 200

Eskaintza
Malape tabernarako zerbitzaria behar da. ☎ 673 481 976

PARTIKULARRAK.....
LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditugu. *biribiltxoko@gmail.com*
☎ 630 055 077 / 666 667 183

BESTELAKOAK.....
Konporta Elkarteak jendea behar du dituen plaza libreak betetzeko. Sartzeko erraztasunak emango dituzte. ☎ 943 740 518

Urtarrilaren 12an autoko gilitza galdunuen Ikastola inguruan. Mesedez esker-tuko nuke topatu duen pertsonak telefono zenbakira deituko balu. ☎ 615 722 974

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Narciso Caballero Caballero

2019ko urtarrilaren 10ean hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Buzas
Euzkoako Buzas Administrazioaren Kontseilua



ROSA M^a
PINTADO


Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabeen azkeneko batzarrean, etxe bakoitzean ur beroaren kontagailuak jartzea adostu dugu, kontsumo indibidualak neurtzeko. Jakin nahiko nuke kontagailu horiek jartzearen kostua nola ordaindu behar dugun eta ados ez daudenak behartu ditzakegun ordaintzera.

Jabetza Horizontaleko legeak ematen duen aukera baliatuta, akordio horrekin lortu nahi dena ur kontsumoaren gastua indibidualizatzea baldin bada, ez litzateke arrazoizkoa aurrez egin beharreko instalazio-kostuak ez indibidualizatzea. Etxebizitza bakoitzak bere kontagailua ordaindu behar du beraz, nahiz eta kontagailua eta haren ezaugarriak jabekideen batzarrak adostutakoarekin bat etorri behar diren beti. Izan ere, kontagailu guztiak berdinak izan behar dira, jasoko diren datuak egokiak izan daitezen. Arrazoi beragatik, etxejabe bakoitzak bere gain hartu beharko litzuzke kontagailua konpontzeko gastuak ere.

AHOLKUA: Kontagailuak jartzeko gehiengoz hartutako erabakiak etxejabe guztiei eragiten die. Hori bai, kontagailua jartzea norbanako bakoitzaren borondatearen esku gelditu ez dadin, komunitateak hartuko du lan horiek egingo dituen kontratatze ardurak eta denen artean ordainduko dituzte gero lan horiek.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Udane**, hilaren 5ean 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Noa**, gaur 7 urte bete dituzulako. Oso ondo ospatu eta muxu pila bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Unai!** Ondo ospatu bihar zure 8. urte-betetzea. Patxo handi bat denon partez.




Zorionak, **Beñat!** Urtetxo bat, dagoeneko! Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Martin**, gaur 5 urte bete dituzulako. Ondo pasa eta patxo handi bat familia-koen, bereziki, Paul eta Peruren partez.



Zorionak, aittita **Paulo** eta **Nere**, 85 eta 8 urte bete dituzuelako. Muxu handi bana familia-koen partez.



Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

KALITATEZKO ATSEDENEAN ADITUAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

%50 era arteko beherapenak

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Reapaindegai zerbitzua daukagu. Deitu ardua hartzen da.

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

667 261 248
(Leire)

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com

18 BARIKAKUA

21:30 Bideo foruma: 'Gloria'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 San Anton pilota txapelketako finala. Ikastolako frontoian.

19 ZAPATUA

12:00 Filatelia erakusketara bisita gidatuta. Antolatzaileak: Haizea eta Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak.

19:00 Matraka Elektrotxarngaren kalejira.

22:00 Olatz Salvador eta Bad Sound-en kontzertua. Maalako parkean.

20 DOMEKA

12:30 eta 16:30 Antzerki musikala: *Go!Azen*. Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

22 MARTITZENA

11:00 San Bizente Eguneko meza eta prozesioa San Rokeko ermitan.

24 EGUENA

19:00 Meditazioa eta jardunaldia: *Gizarte dinamikoek guztia hondatzen dute, bai ohitura eta baita ziurtasun pertsonala ere (Baita erlijiosoa)*. Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

25 BARIKAKUA

20:00 Hitzaldia: Dolmenen ibilbidea. Aranzadi Elkarteko Jesus Tapia eta EHUko Fernando Bazeta izango dira hizlariak. Segidan, bi orduko mahai-ingurua egingo dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, Debe-gesak eta Elgoibarko Udalak antolatuta.

20:30 Zartzuela: *El Caserío, Sasibil*. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: *MICE*. Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
18 BARIKAKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIKAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida



RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar



RPS 271/12
ainhoa
fizioterapia
Jausoro plaza, 6 beheak
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

Zinea (Herriko Antzokian)

'El regreso de Mary Poppins'

18 barixakua: 21:30
19 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS

'El amor menos pensado'

20 domeka: 19:00
21 astelehena: 21:30

'Un día más de vida'
(Ongarri zinekluba)

24 eguena: 21:30

Abenduan hildakoak

. **Jose Maria Astigarraga Egaña**

76 urte, azarok 19

. **Lucia Zabaleta Azurmendi**

95 urte, abenduak 5

. **Arantxa Alberdi Gabilondo**

81 urte, abenduak 12

. **Justo Carcedo Urbina**

77 urte, abenduak 16

. **Cruz Arriola Albizu**

90 urte, abenduak 16

. **Francisco Fernandez Olmo**

64 urte, abenduak 16

. **Jose Maria Aizpurua Epelde**

80 urte, abenduak 18

. **Maria Luisa Epelde Alcelay**

66 urte, abenduak 23

. **Jose Luis Sarrigarte**

Garitaonandia

94 urte, abenduak 24

. **Isabel Amestoy Fernandez**

94 urte, abenduak 27



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida Osun gida

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 18
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 112/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
R.P.S.: 32/17 Barandiaran
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Elbar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404



1962

Aste honetako erretratu zaharra Maria Lucia Arrietak ekarri du BARRENEko erredakziora. 1963-1963. urteko ikasturtean ateratako argazkia da, Santa Klarako mojen eskolan. Ikusten den bezala denak neskak dira, garai hartan neskak eta mutilak aparte joaten zirelako eskolara. Neskak mojen eskolara joaten ziren, eta mutilak, fraideen eskolara. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkiko neska horiek.

Lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Ana Maria Lopez, Aurora Fernandez, Gurutze Garcia eta Amaia Oñederra. **Bigarren ilaran:** Mari Karmen Leiaristi, Maria Lucia Arrieta, Mari Karmen Urrutia eta Maria Angeles Gabilondo. **Hirugarren ilaran:** Maria Jesus Astigarraga, Lourdes Luco, Pake Garcia, Iciar Saez. **Laugarren ilaran:** Rosa Maria Ulazia, Basilia Toral eta Maria Jesus Ubiria. **Atzean:** Pepita Salegi eta Kontxi Zulaika.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- e-postaz bidali: barren@elgoibarkoizarra.eus
- Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

**FONTANERIA Ibámar**
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**ONGI Iturgintza**

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxe: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA



Azpilgoeta, 7 behe - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatelefabide@hotmail.com

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIAK

**Aroztegia ASIMA**
Carpinteria

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
AROTEGIA

Olcaso industriegunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriegunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

I.E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behe - Elgoibar
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

LEIHOAK

**LIDOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BIOD dekorazioa**

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

Gremioen
gida

HURRENGO **BOE** SUSTAPENA ELGOIBARREN, OLASOATEN



EMAN IZENA **ETXEBIDEN**
ETA EZ GALDU AUKERA HAU



943 31 68 68

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**